<table>
<tr><td colspan="2">

**EZ OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO EXTRAORDINARIO**

**2020KO URRIAREN 24 / 24 DE OCTUBRE DE 2022**

</td></tr>
<tr><td colspan="2">

**BERTARATUAK / ASISTENTES**

</td></tr>
<tr><td>

**IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL**

D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna

**KONTU-HARTZAILEA / INTERVENTOR**

D. Xabier Andrés Cambronero jauna

</td><td>

**ALKATEA / ALCALDE**

D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).

**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. María Isabel Larrauri Arriaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Ander Curiel Ayuso PSE-EE (PSOE).

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Elena Ibañez Anucibay andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Amaia Albizu Llubia andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).<br>D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).<br>Dña. Mª Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK).

</td></tr>
</table>

**Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

http://eibar.videoacta.es?pleno=20221024&instante=5

**Eibarko udaletxearen Batzar Aretoan, 2022ko urriaren 24an, arratsaldeko zazpiak izanik, Udalbatza bildu zen bilkura berezian**, goian aipaturiko jaun-andreek osatua; Igone Lamarain Cobo eta Miren Baranguan Yarza andreek justifikatu dute beren ezin etorria.

**En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las diecinueve horas del día 24 de octubre de 2022, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal**, formado por las señoras y señores anteriormente mencionados/as; habiendo justificado su ausencia Dña. Igone Lamarain Cobo y Dña. Miren Baranguan Yarza.

**ATAL BAKARRA**

**Eibarko Udalaren Kirol Patronatua erakunde autonomoa desegitea eta haren estatutu erregulatzaileak indargabetzea.**

**PUNTO UNICO**

**Disolución del Organismo Autónomo Patronato Municipal de Deportes de Eibar y derogación de sus estatutos reguladores.**

**BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.**

ALDEKO BOTOAK: 13 - PSE-EE (PSOE) (9), EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
KONTRAKO BOTOAK: 0
ABSTENTZIOAK: 6 - Eibarko EAJ-PNV.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.**

VOTOS A FAVOR: 13 - PSE-EE (PSOE) (9), EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
VOTOS EN CONTRA: 0
ABSTENCIONES: 6 - Eibarko EAJ-PNV.

Udalbatzak, 1982ko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran, Eibarko Udalaren Kirol Patronatua izeneko erakunde autonomoa sortzea erabaki zuen, kirol-zerbitzu eta -jarduerak eta horiei atxikitako instalazioak kudeatzeko modu gisa.

Resultando que el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión celebrada el 29 de julio de 1982, acordó la creación del Organismo Autónomo denominado Patronato Municipal de Deportes de Eibar como forma de gestión de los diferentes servicios y actividades deportivas, así

como de las instalaciones adscritas a los mismos.

Erakunde Autonomo horretako Zuzendaritza Kontseiluak, 2022ko urriaren 11n egindako bilkuran, Udalbatzari Kirol Patronatua desegiteko eta haren Estatutu Erregulatzaileak indargabetzeko eskatu zion.

Resultando que el Consejo Rector de dicho Organismo Autónomo, en sesión celebrada, el 11 de octubre de 2022, solicitó al Pleno Municipal su disolución, así como la derogación de sus Estatutos Reguladores.

Proposatutako desegite horrek hobekuntza bat ekarriko duenez zerbitzu-eskaintzaren eraginkortasunean eta eragimenean, koordinazio eta prozedura-ekonomia handiagoa, eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak hobeto aplikatzea; azken batean, Toki Ogasunaren baliabideen aplikazio hobeezina.

Resultando que la disolución propuesta supondrá una mejora en la eficacia y eficiencia en la prestación de los servicios, así como una mayor coordinación y economía procedimental, y la mejor aplicación de los principios de sostenibilidad y austeridad presupuestaria y, en definitiva, la aplicación óptima de los recursos de la Hacienda Local.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.f) eta 85 bis.1.a) artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, Udalbatzari dagokio erakunde autonomoen zerbitzuak kudeatzeko moduak onartzea eta erakunde autonomoak sortu, aldatu edo kentzea.

Considerando que, de conformidad con lo previsto en los artículos 22.2.f) y 85 bis.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, corresponde al Pleno de la Corporación la aprobación de las formas de gestión de los servicios y la creación, modificación o supresión de los Organismos Autónomos.

Erakunde autonomoa kentzeak haren sorrerako izapide berberak betetzea eskatzen du, eta Udal Ordenantzetarako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraitu behar zaio.

Resultando que dicha supresión exige los mismos trámites que su creación, debiendo seguirse el procedimiento previsto en el artículo 49 de la de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local para las Ordenanzas municipales.

Kontuan hartuta —1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren bidez onetsitako Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiaren 88.2 artikuluan aurreikusitakoa betez— Eibarko Udala subrogatuko dela desegitea erabakitzen den erakunde autonomoaren eskubide eta betebehar guztietan.

Considerando que, en cumplimiento de lo previsto en el artículo 88.2 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, aprobado por Decreto de 17 de junio de 1955, el Ayuntamiento de Eibar se subrogará en todos los derechos y obligaciones del Organismo Autónomo cuya disolución se acuerde.

Kontuan hartuta, dagozkion betebeharrak bere gain hartzeko, Udalak behar dituen kredituez zuzkitu beharko duela hurrengo urteko bere aurrekontua.

Considerando que en el Presupuesto del Ayuntamiento del próximo ejercicio deberán dotarse los créditos necesarios para asumir las correspondientes obligaciones.

Ikusita Idazkaritzaren 2022ko urriaren 11ko txostenean jasotako erabaki-proposamena eta espedientean dauden gainerako agiriak.

Vista la propuesta de acuerdo contenida en el informe de Secretaría, de 11 de octubre de 2022, y demás documentación que obra en el expediente.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, baita 82, 123, 126, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Entitateen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 82., 123., eta 126. artikuluetan ezarritakoarekin ere.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 20.1.c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, así como en los arts. 82, 123, 126, del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre.

Ondorioz, kontuan hartuta 2022ko urriaren 17ko Erakunde, Lege eta Lurralde Gaietako Lan Batzordeak aldeko irizpena eman zuela,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de 17 de octubre de 2022,

Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** Hasierako onespena ematea Eibarko Udalaren Kirol Patronatua izeneko Toki Erakunde Autonomoaren desegiteari eta estatutu erregulatzaileak indargabetzeari.

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la disolución del Organismo Autónomo Local denominado Patronato Municipal de Deportes de Eibar, así como la derogación de sus Estatutos reguladores, con efectos del 31 de diciembre del presente año.

**BIGARRENA.-** Kirol-zerbitzu eta kirol-jarduera guztiak Udalak bere gain hartzea, bai eta haiei atxikitako instalazioak ere, 2023ko urtarrilaren 1ean, toki-entitate honek zuzenean kudeatzeko modalitatean, tarteko erakunderik gabe, eta sortuko den Sail berri bati atxikituz.

**SEGUNDO.-** Asumir los diferentes servicios y actividades deportivas, así como las instalaciones adscritas a los mismos, con fecha 1 de enero de 2023, bajo la modalidad de gestión directa por esta entidad local sin organismo interpuesto, siendo adscritos a un Departamento de nueva creación.

**HIRUGARRENA.-** Udal honek Erakunde Autonomoaren ondorengotza hartuko du izaera unibertsalarekin, eta hura desegin ondoren geratzen diren eskubide eta betebehar guztiak subrogatuko ditu.

**TERCERO.-** Este Ayuntamiento le sucederá con carácter universal, subrogándose en todos los derechos y obligaciones que, tras la disolución del Organismo Autónomo, queden pendientes.

**LAUGARRENA.-** Abenduaren 31n kobratzeko dauden eskubideak eta

**CUARTO.-** Los derechos pendientes de cobro y las obligaciones pendientes de

ordaintzeko dauden obligazioak Udalaren aurrekontuan sartuko dira.

pago a 31 de diciembre de 2022 se incorporarán al presupuesto municipal.

**BOSGARRENA.-** Eibarko Udalaren Kirol Patronatuaren izenean dauden banku-kontuak ixtea eta baliogabetzea. Kontu horietan dagoen saldoa udal-titulartasuneko beste kontu batzuei transferituko zaie.

**QUINTO.-** Proceder al cierre y cancelación de las cuentas bancarias a nombre del Patronato Municipal de Deportes de Eibar. El saldo existente en dichas cuentas se transferirá a otras de titularidad municipal.

**SEIGARRENA.-** 2023ko urtarrilaren 1ean, erakunde autonomoko plantilla osoa udal-plantillan eta lanpostuen zerrendan sartuko da, langileen lanbide-kategoria, ordainsari-mailak, antzinatasuna eta gainerako lan-baldintzak aitortuta.

**SEXTO.-** Con fecha 1 de enero de 2023, la totalidad de la plantilla del Organismo Autónomo se integrará en la plantilla municipal y en la relación de puestos de trabajo, con reconocimiento de su categoría profesional, niveles retributivos, antigüedad y demás condiciones de trabajo.

**ZAZPIGARRENA.-** 2023ko urtarrilaren 1ean, Eibarko Udalaren Kirol Patronatuari, beren helburuak betetzeko eta zerbitzua behar bezala emateko, atxikitu zitzaizkion udal-ondasun guztiak udal-ondarera itzuliko dira, bai eta edozein titulu legitimoren ondorioz eskuratutakoak eta desegiteko unean izan ditzakeen baliabide eta eskubideak ere.

**SÉPTIMO.-** Con fecha 1 de enero de 2023, todos los bienes municipales que fueron adscritos al Patronato Municipal de Deportes de Eibar para el cumplimiento de sus fines y la correcta prestación de los servicios, revertirán al patrimonio municipal, así como todos aquellos que haya adquirido por cualquier título legítimo, y los recursos y derechos de los que pueda disponer en el momento de su disolución.

**ZORTZIGARRENA.-** Udalak bere gain hartzea obra, zerbitzu, hornidura,

**OCTAVO.-** Asumir todos los derechos y obligaciones contractuales derivados de

hitzarmen eta desegiten den egunean indarra duen beste edozein kontraturen ondoriozko eskubide eta betebehar guztiak.

contratos de obras, servicios, suministros, convenios y cualquier otro vigente en la fecha de disolución.

**BEDERATZIGARRENA.-** Erabakia Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Erakundeen Erregistroari jakinaraziko zaio.

**NOVENO.-** El acuerdo se comunicará al Registro de Entidades Locales del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco.

**HAMARGARRENA.-** Alkate-Udalburu jaunari ahalmena ematea, zuzenean eta tarteko erakunderik gabe kudeatuko den zerbitzuari atxikitako giza baliabideak eta baliabide materialak eskualdatzeko beharrezkoak diren eragiketa material guztiak koordinatzeko; eta Gipuzkoako Foru Ogasunean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean eta beste edozein erakundetan egin beharreko kudeaketak egiteko.

**DÉCIMO.-** Facultar al Sr. Alcalde-Presidente para coordinar todas las operaciones materiales necesarias para la transferencia de los medios humanos y materiales adscritos al servicio que se asume bajo gestión directa sin organismo interpuesto, y realizar las oportunas gestiones ante la Hacienda Foral de Gipuzkoa, el Instituto Nacional de la Seguridad Social y cualesquiera otros organismos en que éstas sean procedentes.

**HAMAIKARRENA.-** Alkate-Udalburu jaunari ahalmena ematea erabaki hau formalizatzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

**UNDÉCIMO.-** Facultar al Sr. Alcalde-Presidente para la firma de cuantos documentos sean necesarios para formalizar el presente acuerdo.

**HAMABIGARRENA.-** Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta webgunean iragarkiak kaleratuz,

**DUODÉCIMO.-** Someter el presente acuerdo a información pública por plazo de 30 días hábiles, mediante anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, así como en el tablón de edictos del Ayuntamiento,

interesdunek erreklamazioak edo iradokizunak egin ahal izan ditzaten.

para que las personas interesadas puedan formular reclamaciones y/o sugerencias.

**HAMAHIRUGARRENA.-** Aurkeztutako erreklamazioak eta iradokizunak Udalbatzak ebatziko ditu eta, aldi berean, Erakunde Autonomoa behin betiko desegiteko erabakia hartuko du. Hala ere, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, ez da beste erabakirik hartu beharrik izango, eta Idazkaritzak horren egiaztagiria egingo du. Alkatetza-Lehendakaritzak ebazpena emango du, ordura arte behin-behinekoa izan den erabakia behin betikoa dela adieraziz eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emanez.

**DECIMOTERCERO.-** Las reclamaciones y sugerencias presentadas serán resueltas por el Ayuntamiento Pleno que acordará, al mismo tiempo, la disolución definitiva del Organismo Autónomo. No obstante, y en el supuesto de que no se presenten reclamaciones ni sugerencias, no será necesaria la adopción de nuevo acuerdo, extendiéndose a tales efectos certificación acreditativa de tal extremo por la Secretaría. La Alcaldía-Presidencia dictará Resolución elevando a definitivo el acuerdo hasta entonces provisional y ordenando su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Eta, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoela, eta arratsaldeko zortziak hogeitabost gutxi izanik, Alkate-Udalburu jaunak amaiera eman dio Osoko Bilkurari, nik, Idazkari Orokorra modura, horren fede emanez.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas treinta y cinco minutos, el Sr. Alcalde-Presidente levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO,

Jon Iraola Iriondo Juan Agustín Villafranca Bellido